



## Gasteiz eta Sevilla lotuko ditu Ryanairrek astean birritan



Ryanair hegaldi merkeak eskaintzen dituen Irlandako konpainiak Arabako hiriburua Sevillarekin lotuko du 2017ko urriaren 31tik aurrera. Astean birritan, asteartetan eta larunbatetan, eskainiko ditu hegaldiak.

Ryanair konpainiak Espainian eta Portugalen duen salmenta arduradunak, Jose Esparterok, ostegun honetan eman ditu zerbitzu berri horri buruzko azalpenak. Aurretik Koloniar

(Alemania) joateko hegaldiak iragarrita zituen Ryanairrek.

Esparteroren arabera, Sevillarako hegaldiak 21:50ean aterako dira Gasteiztik, eta 21:25ean iritsiko dira Forondara bueltan. Koloniarako hegaldiei dagokienez, 16:25ean abiatuko dira Forondako aireportutik, eta 16:00etan helduko dira Gasteizera. Txartelak salgai daude jada Ryanairren webgunean, 19,99 euroren truke.

Noizean behin eskaintzen diren charter hegaldiak kenduta, Gasteizko Aireportuan bidaiarientzako hegaldiak eskaintzen dituen konpainia bakarra da irlandarra. Bi helmuga horiez gain, Bergamo-Milan eta Hegoaldeko Tenerife ere lotzen ditu Ryanairrek Gasteizekin.

### Pataten antioxidatzaileak hobetu dituzte

Euskal ikertzaileek patata moreen eta gorrien klonak garatu dituzte, osasunarentzat onuragarriak diren pigmentu antioxidatzaileak gaineratuta.

Patatak, oinarrizko elikagaia izateaz eta mundu mailako elikagai-labore nagusietako bat izateaz gain, ondorio osasungarriak izan ditzaketen mineral eta fitokimiko asko ditu. Hauen artean, zelulei minbizi prozesuak sortzen dituen kaltetik babesten laguntzen dieten substantziak.



Hau dela-eta kontsumoaren garrantziaren inguruan kontzientziarazio handiagoa dago eta produktu berriak garatzeko interesa ere handiago da.

Arabako Arkauten eta Iturrietan egiten den puntako ikerketari esker lortu da aurrerapauso hau.

### Gasteizko enpresa batek lastozko eraikinak egingo ditu

Ecopaja gasteiztar enpresak lastozko eraikinak eraikitze baimena jaso du. Espainiako lehena da, eta hirugarrena Europan. Akreditazio Erakunde Nazionalaren (ENAC) laborategiek eman diote baimena, egiaztatu egin baitute konpainiaren eraikinek 28 metroko altuera lor dezaketela eta sute batean bi ordu eta erdi iraun dezaketela eraitsi barik.

Egiaztagarria lortuta, euskal konpainiak edozein motatako eraikinak egin ahalko ditu: etxebizitzak, egoitza administratiboak, ospitaleak, ikastetxeak... Ecopajaren esanetan, lastozko eraikinak "ekoeragingarriak" dira, berogailu kontsumoa %90 txikiagoa baita.



## Gaztelugatxen kupoak ezartzea edo sarrera kobratzea aztertuko du Aldundiak

Gaztelugatxeko San Joan basilizara gero eta turista gehiago joaten dira asteburuetan, eta, horren ondorioz, ilara luzeak eratu ohi dira eskaileretan.

Hori horrela, Bizkaiko Aldundiak esku hartuko du, eta aztertuko du basilizarako sarbidea mugatzea, kupoak ezartzea edo sarrera kobratzea, biotopoa babesteko eta turismo jasagarria sustatzeko. Plana sei hilabeteren buruan egongo da prest, Aldundiak adierazitakoaren arabera.

Aste honetan bertan, Gaztelugatxe ikusgai izan da, 'Game of Thrones' denboraldi berriaren trailerrean. Bi aldiz ikus daiteke Bizkaiko paraje eder hori.



## 'Nur eta herensugearen tenplua' filma, ekainaren 2an, zinema-aretoetan

Lotura Films ekoiztetxearen eskutik iritsiko da pantaila handietara Nur eta herensugearen tenplua lana. Juanba Berasategik zuzendutako filmak Toti Martinez de Lezea idazleak asmatutako Nur pertsonaiaren abenturak kontatzen ditu, oraingo honetan, Txinan.

Txinara joan da bizitzera Nur, gurasoekin batera, eta egun batean, bertan egindako lagun baten urtebetetzea ospatuko dute. Horretarako, jolasparke erraldoi batean egin dute hitzordua, eta, jolasten ari diren bitartean, omenduaren desagerpenaz ohartuko dira. Haren bila ari direla, labirinto batean murgilduko dira, eta bidean aurkituko dituzten igarkizunak ebatzi beharko dituzte bertatik ateratzeko.



## Gasteiz osoa, kopako finalaren zain

Gasteiz osoa Alavesek Barçaren kontra larunbatean Vicente Calderon zelaian jokatu duen kopako finalaren zain dago. Bilbon ere adi daude, Alavesek irabaztean, Athletic Europatik at geratuko zen.

## Baskoniak hirugarren partida jokatu beharko du



Herbalife Gran Canaria taldeak Baskoniaren aurkako kanporaketa luzatzea lortu du arabarrei Kanarian bertan 94 eta 79 irabazita, final-laurdenetako bigarren partidan.

Etxekoak nagusi izan dira lehen minututik eta gasteiztarrek huts ugari egin dituzte. Buesa Arenan erabakiko da finalerdietarako txartela nork lortzen duen.

## eguzaldia Sargoriaren ondotik... abisu horia euriteengatik.

Eusko Jaurlaritzak abisu horia ezarriko du Euskadin, 18:00etan hasita, prezipitazio handiak egoteko arriskua dela eta. Euskalmetek egindako iragarpenaren arabera, ordubetan 15 litro baino gehiago pila daitezke metro koadroko. Arratsaldean zaparrada txikiak eta trumoitsuak botako ditu, baina zenbait lekutan handiak izan daitezke. Euria denean egingo badu ere, gero eta mendebalderago, ekaitzak orduan eta gogorragoak izan daitezke eta txingorra ere bota dezake. Ekaitz-guneetan haize-boladak gogorrak izan daitezke. **Larunbatean** hodeiak eta urdinguneak tartekatuko dira eta tenperaturak behera egingo du. **Igandean**, berriz, beroa eta ezegonkorra izango da.

## Ziganda entrenatzaile berria aurkeztu du Athleticek

Jose Angel Kuko Ziganda izango da Athletic Cluben entrenatzailea hurrengo bi denboraldietan, klubak jakinarazi duenez.

Zigandak Ernesto Valverdek utzitako lekua hartuko du, talde filialean sei urte egon eta gero.

Ziganda Josu Urrutia presidentearen hirugarren entrenatzailea izango da. Aldez aurretik Marcelo Bielsa (bi urte) eta Valverde bera (lau) izan dira.

